

**HAUTESKUNDEAK.** Bizkaiko 39 herri batzarrek Bilbao babestu izana haren «begibistako arrakasta» iruditu zaio

## Josu Bergarak Bizkaiko diputatu nagusirako hautagaitza erretiratu du

BBBk proposatu zuen Jose Luis Bilbao izango da EAJren hautagaia zerrendetan

Erredakzioa | DONOSTIA

Datozen hauteskundeetan Jose Luis Bilbao izango da EAJren hautagaia Bizkaiko ahaldu nagusirako, kargu horretan zortzi urte daramatzen Josu Bergarak bere hautagaitza erretiratu baitu. Bilbaoren «begibistako garaipena» onartu du Bergarak, prentsa-ohar batean, jeltzaleek Bizkaiko zenbait herritan egin dituzten bozketetan oinarrituta. Bilbao Bizkaiko Foru Aldundiko presidentziako diputatu eta foru gobernuko eleduna da, eta EAJren Bizkai Buru Batzarrek proposatu zuen Bergara ordezkatzeko.

Jeltzaleek 43 herri batzarretan egin dituzte bi hautagaiei buruzko bozketak, eta Bilbaok 39tan lortu du babesia. Beste 80 herritan bozkatzea falta bada ere, Josu Bergarari emaitza hori aski iruditu zaio bere hautagaitza erretiratzeko. Ahaldu nagusi karguan lanean jarraitzeko «gogoz eta ilusioz» zegoela aitortu arren, «ebazpena lasitasunez eta demokratikoki» hartu duela zioen atzoko oharrean, «normaltasun osoz».

«Ez dut nahi nire alderdiko afiliatuak dagoeneko beharrezkoak ez diren aurka-jartzeetara eta leialtasun gatazketara eramaterik». Bergararen ustez,

«gehiiegizko dramatismo eta partzialitatez» bizi du alderdiak maiatzeko hauteskundeetarako zerrendak osatzeko prozesua.

Bergarak eskerrak eman zizkien bere alde bozkatu dutenei, «bihotz-bihotzez», eta EAJk datozen udal eta foru hauteskundeetan «erabateko arrakasta» lortu dezan «orain arteko ilusioarekin» lan egingo duela esan zuen. Halaber, Bilbao alderdikidea zoriondu zuen, eta bere «leialtasuna eta laguntza» eskaini zizkion.

### Barne eztabaida EAJn

Jose Luis Bilbaok Bergara ordezkatzeko zuela iragarri zuen Iñigo Urkullu buru duen BBBk, iazko azaroaren bukaeran. Eta Bergarak berak ez zela berriro aurkeztuko esan zuen: «Aldaketa bat egiteko garaia dela eraba-



JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS  
Josu Bergara eta Jose Luis Bilbao, Bizkaiko Batzar Nagusietan.

ki dugu». Baina iritziz aldatu zuen gero, azkenean aurkeztu egin baitzen. Atzoko oharrean dioenez, 18 herri batzarrek hautagai gisa proposatu zuten, lan horretan esperientzia handia zuela kontuan hartuta.

Alderdiko buru batzuk ere Bergararen alde agertu ziren, eta eztabaida piztu zen alderdiaren barruan. Abenduaren 1ean, Iñaki Anasagasti Espainiako Kongresuko diputatu jeltzaleak proposamena kritikatu

zuen, *Deia* egunkarian: alderdiko «barne adostasuna» haustea leporatu zion BBBri.

Eta Xabier Arzalluz EAJko presidentek ere argi utzi zuen Bergara zela hautagai «aproposena». Euskal Tebistan esan zuenez, «zaldirik indartsuena hautatu behar da, datozen hauteskundeak oso gogorak izango dira eta». Bergarak herritarren babesia izango zuela ere esan zuen, Bilbao «ez duelako inork ezagutzen».

**'OTANO AUZIA'.** Nafarroako Gobernuak lehendakari izandakoari eta haren emazteari 1989an «eroskeria estaltzea» leporatu diete

I.A. | IRUÑEA

Nafarroako Auzitegiko lehen Instrukzio Epaitegiak *Otano auziaren* ahozko epaiketa hasia erabaki du. Akusatuen aulkian eseri beharko dute lehenengo aldiz Javier Otano Nafarroako presidentea ohiak (PSN), haren emazte Maria Teresa Arcosek eta Agustin Guardia-Palau abokatuak; horiekin batera, *Urralburu auzian* zigortutako Gabriel Urralburu Nafarroako lehendakari ohiak, Antonio Aragon Herrilari kontseilari ohiak, haien emazte Olivia Balda eta Isabel Romeo eta Jorge Esparzak, Aragonen izen-mailegatzailak, Urralbururi eta Aragoni eroskeria delitua leporatzen zaie eta besteek «eroskeria estaltzea».

## Ahozko epaiketa hasia erabaki dute Javier Otano eta beste zazpi auzipetuen aurka

Epaiaketa irekitzeko erabakia sei urte eta erdiko instrukzioa egin ondoren hartu da. HBk, akusazio partikular gisa, eta 129 herritarrek, herri akusazio moduan, Urralburu eta Aragon eroskeria delituaren erantzule egiten dituzte. Bosch-Siemens multinazionalak Nafarroako Gobernuari 30 milioi eurogatik erosi zion Safel lantegia 1989an, Iruñean. Erosketan ustez 1,06 milioi euroko eskupekoak jaso zituzten biak. Besteak delituaren «estaltzaile» egiten dituzte.

Autoari ezin zaio helegiterik aurkeztu. Maria Jose Alegre epaileak akusatuen behin-behineko askatasuna erabaki du; Otano eta bere emaztea aske daude eta gainontzekoak hirugarren graduan. Kautelazko neurri gisa, Urralbururi eta Aragoni 2 milioi euroko fidantza jarri die eta besteek 8.000 eurokoa. Hogeita lau orduko epean dirua epaitegira eramaten ez badute, dituzten ondareak bahituko zaizkie.

neko askatasuna erabaki du; Otano eta bere emaztea aske daude eta gainontzekoak hirugarren graduan. Kautelazko neurri gisa, Urralbururi eta Aragoni 2 milioi euroko fidantza jarri die eta besteek 8.000 eurokoa. Hogeita lau orduko epean dirua epaitegira eramaten ez badute, dituzten ondareak bahituko zaizkie.


### Fiskala, defentsarekin bat

Fiskalak ez du akusaziorik aurkeztu eta epaileak hiru egun eman dizkio bere idatzia aurkezteko. Izan ere, defentsarekin batera fiskalak kasua artxiba-

tzea eskatu zuen eroskeria delituak preskribitu egin zuela argudiatuz. Epaiaketa data ezarri ez den arren, akusazioko abokatuak epaiketa uda ondoren egingen dela uste dute.

Fiskalak eta epaileak eskatua zuten ere HBren herri akusazioa baliogabetzea, Baltasar Garzon epaileak abuztuan kalera autoak HBren jarduna baliogabetzen zuela argudiatuta. HBk egindako azken akusazio partikularra 2002ko ekainean aurkeztutakoa dela erantzun die epaileak, Garzon erabakia baino lehenagokoa, alegia.

Otano eta haren emaztea eta



JESUS DIGES / EFE  
Javier Otano.

Guardia-Palau abokatuak ez beste guztiak herrilari adjudikaziotan eskupekoak jasotzeagatik zigortu zituzten.

**Errenteriako Udala**  
IRAGAKIA

Udalbatzarrek 2003ko urtarrilaren 15ean egindako ezohizko osoko bilkuran hasierako onarpena eman zion Errenteria Hiria Hiri Ordenaziorako Plan Orokorren dokumentuari, 2002ko abenduan Plan Orokorren Bulegoak idatzitako dokumentuaren arabera.

Aipatutako erabakiari jarraiki, expedientea HILABETEKO epean jendaurrean jartzen da, hain zuzen ere iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik hasita. Epe horretan interesatuak proiektua aztertu eta bidezko alegazioak egin ahal izango dituzte.

Errenterian, 2003ko urtarrilaren 15ean  
Alkatea: Miguel Buen Lacambra.

**Tradebi**  
EB Traducciones Itzulpenak SL

**ITZULPENETAN ZURE AUKERA**

Hizkuntz guztiak  
Teknikoa  
Legala  
Zinpekora  
Presazkoa  
Kalitatea ziurtatua

T 94 447 41 15 - F 94 447 13 87 - Email tradebi@sarenet.es

**J. Bengoa**

**PIANO ESKAINTZAK URTEA AMAITU ARTE**

MAMUT MUSIKA ZENTROA (Oiartzun)